

BESTELAKO XEDAPENAK

LAN ETA ENPLEGU SAILA

5407

EBAZPENA, 2023ko azaroaren 24koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia-rena, zeinaren bidez argitara ematen baita Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak hartu duen erabakia, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2009ko maiatzaren 4ko Aginduan aurreikusten diren laguntzen 2023ko deialdia finantzatzeko esleitu diren kredituen zenbateko osoa gehitzeari buruzkoa (Agindua, 2009ko maiatzaren 4koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuarena, laneratzeko enpresak sortu eta mantentzeko laguntzak arautzen dituen).

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, 2023ko azaroaren 24ko bileran, erabaki du Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2009ko maiatzaren 4ko Aginduan aurreikusten diren laguntzen 2023ko deialdia finantzatzeko esleitu diren kredituen zenbateko osoa gehituko dela (Agindua, 2009ko maiatzaren 4koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuarena, laneratzeko enpresak sortu eta mantentzeko laguntzak arautzen dituen). Bada, bat etorri maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuaren bitartez onartutako Lanbideren Estatutuen 10.2 artikulua n) apartatua xedatutakoarekin, abuztuaren 30eko 98/2022 Dekretuak emandako idazketan, erakunde autonomo horren zuzendari nagusiari dagokio hura argitaratzea.

Hori dela eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Argitaratzea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, 2023ko azaroaren 24ko bileran, hartu duen erabakia. Horren bidez, hain zuzen, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2009ko maiatzaren 4ko Aginduan aurreikusten diren laguntzen 2023ko deialdia finantzatzeko esleitu diren kredituen zenbateko osoa gehituko da (Agindua, 2009ko maiatzaren 4koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuarena, laneratzeko enpresak sortu eta mantentzeko laguntzak arautzen dituen).

Bigarrena.— Jakinaraztea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak hartu duen erabakia (orain argitaratzen denak) ondorioak izango dituela onartzen den egunean.

Hirugarrena.— Jakinaraztea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak hartu duen erabakiaren aurka (orain argitaratzen dena) berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dela, organo beraren aurka, hilabeteko epean, ebaizpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita; bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko azaroaren 24a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,
FRANCISCO PEDRAZA MORENO.

ERABAKIA, LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUKO ADMINISTRAZIO KONTSEILUARENA, ZEINAREN BIDEZ GEHITU EGITEN DEN JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZAKO SAILBURUAREN 2009KO MAIATZAREN 4KO AGINDUAN AURREIKUSTEN DIREN LAGUNTZEN 2023KO DEIALDIA FINANTZATZEKO ESLEITU DIREN KREDITUEN ZENBATEKO OSOA (AGINDUA, 2009KO MAIATZAREN 4KO, JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZAKO SAILBURUARENA, LANERATZEKO ENPRESAK SORTU ETA MANTENTZEKO LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUENA)

2023ko maiatzaren 24ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (97. zenbakian) argitaratu zen Ebazpena, 2023ko maiatzaren 18koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2009ko maiatzaren 4ko Aginduan aurreikusten diren laguntzen 2023ko deialdia argitaratzea agindu zuena (Agindua, 2009ko maiatzaren 4koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuarena, laneratzeko enpresak sortu eta mantentzeko laguntzak arautzen dituen). Deialdian, guztira 12.331.000 euroko laguntzak ematea aurreikusi zen: 3.363.500 euro 2023ko ordainketa-kredituan, 3.602.000 euro 2024ko konpromiso-kredituan, 3.402.000 euro 2025eko konpromiso-kredituan eta 1.963.500 euro 2026ko konpromiso-kredituan, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoari dagokion 41. ataleko 3121 – Gizarteratzea programako 07 – Gizarte Inklusio Zerbitzuan.

Ebazpenean ezarritakoaren arabera, zenbatekoa eguneratu ahal izango zen baldin eta aurrekontuetan aldaketak egitea onesten bazen indarreko legerian ezarritakoarekin bat etorriz; aldaketak badaude, gainera, horren berri eman beharko zen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpenaren bidez.

Laneratzeko enpresek aurreko ekitaldian baino lanpostu gehiago izan dituztenez, eta horien-gatik 2023ko ekitaldian dirulaguntza eskatu dutenez, programa honi baliabide ekonomiko gehiago esleitu behar zaizkio, baztertuta geratzeko arrisku-taldean sartuta egonda laneratzeko enpresetan kontratatuta dauden pertsonen enplegua eta horien finantza-egonkortasuna arriskuan ez jartzeko.

Hori dela bide, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak proposatuta, erakunde autonomo horren Administrazio Kontseiluak, 2023ko azaroaren 24an egindako bileran, honako erabaki hau hartu du.

ERABAKIA

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2009ko maiatzaren 4ko Aginduan aurreikusten diren dirulaguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak gehitzea (Agindua, 2009ko maiatzaren 4koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuarena, laneratzeko enpresak sortu eta mantentzeko laguntzak arautzen dituen). Zenbatekoa 2.680.000 eurotan gehituko da, Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoari dagokion 3121 programan — Gizarte Inklusio Zerbitzuan. honako banaketa honen arabera: 175.000 euro 2023 ordainketa-krediturako, 1.030.000 euro 2024 konpromiso-krediturako, 1.230.000 euro 2025 konpromiso-krediturako eta 245.000 euro 2026 konpromiso-kredituetarako.

Horrenbestez, aipatu laguntzak finantzatzera bideratutako aurrekontu-kredituaren zenbatekoa, guztira, 15.011.000 eurokoa da: 3.538.500 euro 2023ko ordainketa-kredituan, 4.632.000 euro 2024ko konpromiso-kredituan, 4.632.000 euro 2025eko konpromiso-kredituan eta 2.208.500 euro 2026ko konpromiso-kredituan.